

Kontratazio Elektronikoaren gure eredua aurrera doa

pr@st



Aurkibidea

- Administrazio Elektronikoaren Jardunbideentzako Saria
- www.contratacion.info orriko edukien eguneratzea
- LKS, eskaintzak era elektronikoan egiten dituen lehenengo enpresa Estatuan



Kontratazio
publiko elektronikoa
Contratación
pública electrónica



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SALA
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA



Editoriala

Kontratazio Elektronikoari buruzko Nazioarteko 2. Mintegiaren ondorioak

Eusko Jaurlaritzak eta Herri Administrazioaren Europako Institutuak antolatuta, Kontratazio Elektronikoaren alorreko mundu osoko adituak bildu ziren Bilbon

Mintegiari esker, nazioarteko adituen esperientziak ezagutzeko eta haien iritziak egiaztatzeke aukera izan zen, eta bi egun horietan, Kontratazio Elektronikoa ezartzeko proiektuak eztabaidatu ziren, eta baita sistema hori ezartzean zer zailtasun sortu diren eta zertan asmatu den eztabaidatzeko ere. Hona hemen ateratako ondorio nagusiak:

- Kontratazio Elektronikoa batez ere ETEentzat da onuragarria, eta gero eta gehiagok aukeratzeko dute formula hori. Alemania gailentzen da: kontratuen %60 ETEek lortzen dituzte.
- Herrialde guztiak ahaleginak egiten ari dira administrazio zentralak duen ezagutza

tokiko administrazioei helarazteko, eta alor horretan Quebec, Austria eta Danimarkako esperientziak dira aipagarriak.

· Egiaztatu ahal izan da Kontratazio Elektronikoaren bitartez asko aurrezten dela. Era horretara, katalogo bidezko erosketak errekurrenteari dagokionez, aurrezki portzentajeak %10, Austrian, eta %21, Quebecen, bitartekoak izan direla aipatu behar da.

· Herrialde gehienek aipatu dute Kontratazio Elektronikoaren alorreko planak aurrera eramateko ezinbestekoa dela

administrazioak zein enpresek parte hartzea.

· Tokiko administrazioek administrazio zentralarentzat eredu izan daitezkeen mailak lor ditzakete. Horren adibidea Norvegia da.

· Plataformen eta garapen legegilearen elkarrengarritasunean aurrera jarraitzea beharrezkoa dela egiaztatzen da. Azkenik, aipagarria da Europako Batzordearen helburua dela aztertzea I-2010 Akzio Planean aurreikusitako helburuak bete diren eta kontratazio administratiboari buruzko Batasuneko 18/2004/CE zuzendaraua bete den aztertzea.

Mundu osoko adituek eztabaidatu zuten Kontratazio Elektronikoari buruz

Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga
Ondare eta Kontratazio Zuzendaria
Eusko Jaurlaritzak

Albisteak



Kontratazio Elektroniko Publikoaren Ereduak Administrazio Elektronikoaren Jardunbideentzako saria jaso du

Expansión egunkariak, T-Systems-ek eta Recoletos argitalpen taldeak Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Publikoaren Ereduari eman zioten "Administrazio Elektronikoaren Jardunbideen" saria "Lurraldeko Enpresen Lehiakortasunaren Hobekuntza" sailean, Euskal Autonomia Erkidegoa delako Estatuan Eskaintza Elektronikoa abian jarri duen lehena. Sariaren helburua da administrazio publikoek Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien erabilera egokia sustatzeko administrazio publikoen proiektu onenak jendaurrean ezagutzea eta horiek sustatzea; aintzat hartzen du, bestalde, Eusko Jaurlaritzak bere proiektuari eman nahi dion jarrera proaktiboa, baliabide elektronikoen bidezko kontratazioaren garapena sustatzen duen Europar Batasuneko zuzendaraua betetzeko zereginean. Goiko argazkian saria jaso zuen Eusko Jaurlaritzaren taldeko hainbat kide ikusten dira.

Kontratazio Elektronikoaren Ereduaren aurkezpena Informatikaren, Telekomunikabideen eta Aholkularitzaren alorreko Enpresei

Eusko Jaurlaritzaren hainbat Sail prest daudenez informatika eta aholkularitza zerbitzuak kontratatzeke espedienteak ateratzeko, Idazkaritza Teknikoak deialdia egin zuten aipatutako sektore horietako enpresei informazio bileretan parte har zezaten, ekainaren 20an eta 21ean Gobernuaren Egoitzan, Lakuan. Saio horietan 90 lagunek parte hartu zuten guztira, Euskadiko zein Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko 80 enpresen ordezkari gisa. Informazioa emateko saio horien helburua zen Kontratazio Elektronikoaren eredu aurkeztea, erabilera erraza dela erakustea eta Eusko Jaurlaritzak denbora gutxian kaleratuko dituen lehiaketetan enpresei era elektronikoan parte hartzeke aukera emango dieten prozedura teknikoak eta administratiboak betetzea zein egokia den azaltzea. Goiko argazkian informazio saioaren une bat ikusten da; Eusko Jaurlaritzaren eta EJIE S.A.-ren ordezkariak agertzen dira.

www.contratacion.info orrialdeko edukien eguneratzea

Urte hasieratik bertatik ari da Eusko Jaurlaritzak Kontratazio Publiko Elektronikoaren Ereduari eta horren aplikazioei buruzko informazioa ematen helbide hauetan:

www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa

Eskaintzen den informazioaren bitartez Ereduaren eremu guztien berri jasotzen da; dena dela, honako atal hauek dira nabarmenenak:

- **Lizitazio Elektronikoa:** Aplikaziorako sarbidea
- **Eskaintza era elektronikoan egiteko baldintzak:** Zer egin behar dut eskaintza era elektronikoan egiteko?
- **Lehiaketak eta Lizitazioak:** Kontratazio Administrazioen bilaketa
- **Formazio Ekintzak:** Aurrez aurreko formazioa eta online formazioa
- **Kontratazio Erregistro Ofiziala:** Kontsultak, izena emateko inprimakiak...
- **Erabiltzaileentzako Arreta:** Euskarri Teknikoa Kontratazio Elektronikoaren Sistemaren Erabiltzaileei

Batez ere eduki hauek erakusteko ataletara joatea merezi du:



- **Online formazioa:** Macromedia Flash aurkezpen multzo bat eskaintzen du; Kontratazio Elektronikorako prestatzen lagunduko die enpresei.
- **Gorabeherak konpontzea eta erabiltzaileentzako arreta:** eskaintzak era elektronikoan egiteko aplikazioa erabiltzean sor daitezkeen gorabehera administrazio eta tekniko ohikoenei buruzko informazioa ematen du. Informazio hori irizpide hauetan oinarrituta erakusten da:
 - **Gorabehera baten sintoma-kausak:** Gorabeheren kausa izan daitezkeenei buruzko alarma mezuen zerrenda.
 - **Lizitazio Elektronikoko Aplikazioaren erabilera sekuentziaren ondoriozko gorabeherak:** Aplikazioak erabiltzean sor daitezkeen gorabeherari buruzko alarma mezuen zerrenda.

Kopurua

4,53

Eusko Jaurlaritzak azken 2 urteotan deitu dituen lizitazioetan eta lehiaketa bakoitzean eskaintza egin duten enpresen batez bestekoa.

Pertsona

Maribel Gutierrez
Seguros Lagun Aro



Maribel Gutierrez-ek, Arabako Lagun Aro Aseguru era-kundearen kontuen arduraduna den aldetik, bere enpresaren eskaintza prestatu zuen, lizitazio elektronikoaren aplikazioan kargatzeko.

Elkarrizketa

LKS enpresako Aholkulari den Aitor Orobengoarekin solasean aritu gara, prozesuan izan duen esperientziari buruz.

Nolako izan zen lizitazio elektronikoan izan zenuen lehenengo esperientzia?

Lehiaketa Buletinean irten bezain pronto, Kontratazio Mahaiarekin jarri nintzen harremanetan, eskaintza era elektronikoan egiteko modua ezagutzeko asmoz. Hurrengo egunetan, gure eskaintza osatzen nuen bitartean, nire ordenagailua prestatu eta lehenengo frogak egin nituen; dena behar bezala zebilela egiaztatu nuen.



LKS, eskaintzak era elektronikoan egin dituen lehenengo enpresa Estatuan

Eskaintza prest izan genuenean, arratsalde hartan bertan bidali genuen karga eta sinadura elektronikoa. Handik gutxira, gure eskaintza Eusko Jaurlaritzaren zerbitzarietan sartua zela zioen ziurtagiria jaso genuen.

Zure ustez: Zer abantaila eta zer zailtasun ditu lizitazio elektronikoak paperezko ohiko prozeduraren aldean?

Prozesua bulegotik bertatik egitea da, nire ustez, abantaila nagusia; eskaintza bulegotik mugitu gabe eta eguneko... edo gaueko edozein ordutan egiteko modua duzu. Horrez gainera, eskaintza era elektronikoan egiteko aplikazioak B gutunazalean sartu beharreko baldintza administrazioak egiaztatzen dituzenez, saihestu egiten dira eskaintzak egiteko ohiko sistematan sor daitezkeen hutsegiteak. Azkenik, eskaintzak zabaltzeko jendaurreko ekitaldia internet bidez ematea izugarria da, bulegotik bertatik ikus baitezakezu zein enpresak

eta zer prezioetan eskaintzen dituzten beren zerbitzuak.

Zailtasunei dagokienez, eskaintzek ez dute gehiegizko pisurik hartu behar, horrek zaildu egiten baitu PCTik Eusko Jaurlaritzaren zerbitzarietara agiriak bidaltzeko prozesua. Gaur egun, enpresek ez dugu konexio bereziki bizkorrik, beraz, gure eskaintzetan ez ditugu fitxategien bolumena handituko duten eta ezinbestekoak ez diren osagaiak sartu behar.

Enpresei eskaintzak era elektronikoan egiteko aholkua emango zenieke beraz?

Nik etekin onak izan ditut. Nire ustez, lizitazio elektronikoak abantaila nabarmenak ditu eta berehalako aurrizkiak ematen dizkie enpresei. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak zabalkundearen eta formazioaren alorrean egindako ahalegina aukera handia da administrazio publikoak oso epe laburrean bereganatuko duen mekanismoarekin trebatzeko.

Zenbakiak

- 8 Eskaintza era elektronikoa egindako kontratazio txostenak.
- 3 Prozedura elektronikoa bidez kontratatu dituzten Eusko Jaurlaritzaren Sailak: Kontratazio Batzorde Nagusia, Baliabide Orokorren Zuzendaritza eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE-IVAP).
- 143 Formazio ikastaroetan parte hartu duten pertsonak.
- 84 Formatutako enpresak.

Lizitazio elektronikoa bitartez kontratatu diren ondasun eta zerbitzu motak:

- Aholkularitza zerbitzuak.
- Aseguruak.
- Bulegoko altzariak.
- Segurtasun sistemak.
- Kontu ikuskaritzak egitea.
- Euskarazko eta gaztelaniazko testuen itzulpen zerbitzuak.

Enpresen formazio ikastaroen eskaintza KZgunea telezentroen bitartez

Enpresek Kontratazio Elektronikoa ereduari buruzko formazio ikastaroetara erraz jo dezaten, hitzarmen bat izenpetu da KZgune zentroen sareko arduradunekin Bilboko (Deustuko KZgunea) eta Donostiako (Ernest Lluch KZgunea) zentroetan enpresei ikastaroak eman ahal izateko.

Ekaina eta uztaila bitartean eman dira lehenengo ikastaroak aipatutako KZguneetan, eta era horretara, zabaldu egin da formazio ikastaroetan parte hartu ahal izateko aukera Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetara. (Ikus erantsitako egutegia).

Topaketak

Kontratazio elektronikoa buruzko informazio trukea Kataluniako Generalitatearen eta Eusko Jaurlaritzaren artean



Kataluniako Generalitatearen Ekonomia eta Finantzako Idazkaritza Nagusiko Zerbitzuetako Zuzendaritzaren ordezkariak Eusko Jaurlaritzak Gasteizen duen egoitzara joan ziren Kontratazio Elektronikoa ereduaren ezaugarriak eta hori ezartzeko lanen norainokoa hurbiletik ezagutzeko xedez.

Bestalde, bileran zehar, Eusko Jaurlaritzaren Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren ordezkariak zehatz-mehatz ezagutu ahal

izan zituzten Kataluniako eskaintzaileen Erregistroaren funtzionalitate telematikoa. Era horretara, Eusko Jaurlaritza eta Kataluniako Generalitat elkarlanean jarraitzen dute Kontratazio Elektronikoa bultzatzeko zereginen, sistema hori, ezinbestez, herri administrazio osoan ezarriko baita Batasuneko 18/2004/CE zuzentarauak gomendatzen baitie Estatu kideei Kontratazio Elektronikoa 2007. urtearen amaierarako, asko jota, ezarri edukitzea.


Objektua

Eskaintzak zabaltzeko ekitaldiak emateko Web kamera

Eusko Jaurlaritzak, eskura dituen baliabide teknikoaren arabera, Kontratazio Elektronikoa ereduaren prozeduretan interesa dutenek jendarean eskaintzak zabaltzeko ekitaldietara era birtualean sartzeko modua ematen du.

Zabaltze Ekitaldia ikusteko, Eusko Jaurlaritzak web kamera bat jarriko du ekitaldiak egingo diren aretoetan.

Web kamerak sortzen dituen irudiak Internet bidez transmititzen dira, "Real Player"



bistaratzeko programara egokitutako streaming prozedura bidez. "Real Player" bideo irudiak internet bidez ikusteko doako softwarea da.

Zabaltze ekitaldi bakoitzerako Eusko Jaurlaritzak streaming helbidea emango du Zabaltze Ekitaldia Bistaratzeko funtzioen bitartez.